

AHOZKOTASUNAREN ETA
AHOZKO KULTUR
SORKUNTZEN DIDAKTIKA

Zuzendaria

Karlos Aizpurua Etxarte

Hizlariak

Arantxa Hirigoyen Iriarte Axut antzerki konpainiako arduradun pedagogikoa

Gotzon Barandiaran Arteaga Idazlea eta kulturgilea

Mikel Artola Izagirre Bertsozale Elkarteko hezkuntza eragilea eta ikertzailea

Beatriz Egizabal Ollokiegi Ipuin kontalaria eta clown aktorea

Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika klusterreko teknikaria

Aroa Murciano Eizagirre UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

Ainhoa Ezeiza Ramos UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

Joxerra Garzia Garmendia UPV/EHUko irakasle ohia eta ikertzailea

Izen-ematea: www.uik.eus

Informazioa: www.uik.eus - www.mintzola.eus

UDA IKASTAROAK CURSOS DE VERANO SUMMER COURSES

Miramar Jauregia - Mirakontxa Pasealekua, 48 - 20007 Donostia / San Sebastián
T.: 943 219511 - info@uik.eus - www.uik.eus

Antolakuntza Batzardea/ Comité Organizador/ Organising Committee

Fundación
BBVA

ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

AHOZKOTASUNAREN ETA AHOZKO KULTUR SORKUNTZEN DIDAKTIKA

Uztailak 9-10



Kod. K04-20 | X09-20

Jadueria mota: **Presentziala | Online zuzenean**

Kokalekua: **Miramar Jauregia (Donostia)**

Hizkuntzak: **Euskara**

Balio akademikoa: **20 ordu**

Azalpena

Ahokotasuna euskara ikasgaiari landu ohi da berariaz, baina ahoko komunikazioa edozein ikasgaiari ageri da ikasgaiari, edo, garrantzikoago izan daitekeena, ikasgaiari kanpoko harremanetan. Ahokotasuna eskolan irakats daiteke? Noiz, nola? Ahokoa lantzeko proposamen didaktikorik bada? Nola eragiten du testuinguru soziolinguistikoak ikasle gazteengan? Gazteek pentsatzen edo sentitzen dutena euskaraz adierazteko testuinguru egokirik eta aski baliabiderik ba al dute eskura?

Hezkuntza arautuan ahokotasunaren didaktikan aritzeko hainbat modu daude; ikastaroan hainbat ikuspegi desberdin aurkeztu eta kontrastatuko ditugu. Gainera, ahokotasunak gazteen hezkuntzan dituen hainbat aje eta erronka aztertuko dituen gogoeta batek ilustratuko gaitu.

Ahokotasuna eguneroko solasean bizi da, egunerokoaren isla diren ahoko kultur sorkuntzetan esate baterako. Ahoko kultur sorkuntza lantzea, egitea eta gozaraztea bada ikasleak ahoko komunikazioan trebatzeko eta zaletzeko manera; ahoko komunikaziorako baliabidez jabetzeko modua. Baina antzerki, bertso, ipuin edo kantagintzaren didaktika emoziozko eta gozamenezko hezkuntza bidea da, ez arauzkoa. Gurean baditugu ahoko kultur sorkuntzen heziketan arrakasta duten esperientzia didaktikoak; batzuk biziki garatuak, bestetarik potentzialitate handikoak. Horiek ezagutaraziko ditugu ikastaroan, ahokotasunaren didaktikaren osagarri; edo zurkaitz, hautatzen den talaiaren arabera.

Helburuak:

- Ahokotasuna ikastetxean lantzeko ereduak ezagutaraztea eta kontrastatzea.
- Hainbat ahoko kultur sorkuntzen didaktikaren berri ematea.
- Ahokotasunaren eta ahoko kultur sorkuntzen didaktikaren lekua eta balioak aldarrikatzea hezkuntzan.

Hartzaileak:

Hezkuntza arautuko irakasleak (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa), ahoko kultur sorkuntzen irakasleak (antzerkia, bertso, ipuin...), aisialdiko begiraleak, kultur teknikariak, euskara teknikariak.

Egitaraua

1. EGUNA / Uztailaren 9a

08:45 - 09:00

Aurkezpena

09:00 - 09:45

Antzerkiaren didaktika edo nola irakatsi antzerkia hezkuntza arautuan

Arantxa Hirigoyen Iriarte. Axut antzerki konpainiako arduradun pedagogikoa

09:45 - 10:00

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

10:00 - 10:45

Kantagintzaren didaktika edo nola irakatsi kantagintza hezkuntza arautuan

Gotzon Barandiaran Arteaga. Idazlea eta kultur gilea

10:45 - 11:00

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

11:00 - 11:30

Atsedena

11:30 - 12:15

Bertsolaritzaren didaktika edo nola irakatsi Bertsolaritza hezkuntza arautuan

Mikel Artola Izagirre. Bertsozale Elkarteko hezkuntza eragilea eta ikertzailea

12:15 - 12:30

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

12:30-13:30

Ahoko kultur sorkuntza hezkuntza arautuan. Mahai-ingurua

Arantxa Hirigoyen Iriarte, Gotzon Barandiaran Arteaga eta Mikel Artola Izagirre

Moderatzailea: Karlos Aizpurua Etxarte

13:30 - 14:00

Klownklusioak

Beatriz Egizabal Ollokiegi. Ipuin kontalaria eta klown aktorea

2. EGUNA / Uztailaren 10a

08:45 - 09:00

Aurkezpena

09:00 - 09:40

Ahoko komunikazioan eragiteko aukerak aztertzen hezkuntza arautuan

Olatz Bengoetxea Manterola. Soziolinguistika klusterreko teknikaria

09:40 - 09:55

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

09:55 - 10:35

Ahokotasunaren didaktika: irakaslea ardatz

Aroa Murciano Eizagirre. UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

10:35 - 10:50

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

10:50 - 11:15

Atsedena

11:15 - 11:55

Didaktizismotik konplexutasunera: ahokotasunera hurbiltzen kultura herrikoien ikuspegitik

Ainhoa Ezeiza Ramos. UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

11:55 - 12:10

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

12:10-12:50

Gazteak, eskola eta ahokotasuna Joxerra Garzia Garmendia. UPV/EHUko irakasle ohia eta ikertzailea

12:50 - 13:05

Parte-hartze irekia (online eta presentziala)

13:05-14:00

Ahokotasuna hezkuntza araututik egunerokotasunera. Mahai-ingurua

Aroa Murciano Eizagirre, Ainhoa Ezeiza Ramos eta Joxerra Garzia Garmendia Moderatzailea: Karlos Aizpurua Etxarte

Ikastaroa modu presentzian edo online jarraitu ahal izango da zuzenean.

- Presentziala (K04-20): 77 euro. Eman izena [hemen](#).

- Online (X09-20): 65 euro. Eman izena [hemen](#).

Hizlariak



Arantxa Hirigoyen Iriarte


Axut Antzerki Konpainiako arduradun pedagogikoa

17 urtez Seaskako Etxepare lizeoan euskara eta literatura irakasle gisa lanean ibili ondoan, joan den irailaz geroztik *Axut!* kolektiboan lan egiten du, Ximun eta Manex Fuchsekin. Hezkuntza artistikoaz eta bitartekaritzaz/mediazioaz arduratzen da, bereziki ikastetxeetan gauzatzen diren proiektuak kudeatzen.

Antzerkiaren didaktika edo nola irakatsi antzerkia hezkuntza arautuan

Antzerkia eta hezkuntza: bi mundu. Elkarrengandik hurbil edo urrun diren bi mundu. Elkarren osagarri diren bi mundu. Batak bestea menperatu nahi duten bi mundu.

Harreman konplexu bat; funtsezko galderak iradokitzen dituen bikote berezia. Bakoitza komunikazio ekintza mota bat da; eta ikastetxea/eskola kultur sormena, gozamina eta sentimenduak transmititzeko espazioa da.



Gotzon Barandiaran Arteaga

Idazlea eta kulturgilea

Euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea eta plazaratzea iparrorratz, hainbat ekimenen sortzaile eta antolatzaile izan da: Bihotz Bakartien Kluba, Literatura Eskola, Ahotsenea, Literaturia, Jalgi ... Hainbat liburu ere plazaratu ditu.

Kantagintzaren didaktika edo nola irakatsi kantagintza hezkuntza arautuan

Hitzaldian bi egitasmo eragindako hausnarketak partekatuko ditu. Batetik, Rafa Ruedarekin eskaintzen dituen *Hitzen Ahairea* saioek eragindakoak; eta bestetik, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak abiarazitako *Musikariak Ikastetxeetan* programaren koordinatzaile gisa sorrarazitakoak.

Bi egitasmoek biribilgune batean baino gehiagotan egiten dute topo: esaterako, gure kantagintzak euskaldunon iruditegian eta euskaltasunean duen eraginean.

Hizlariak



Mikel Artola Izagirre

Bertsozale Elkarteko hezkuntza eragilea eta ikertzailea

Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen, eta bertsolaritzaren irakaskuntzan eragiten aritu da; hain zuzen, metodoaren gaineko berrikuntza prozesua gidatzen dabil Bertsozale Elkartean, eta, horrekin batera, Mondragon Unibertsitateko Berrimet masterrean dihardu.

Bertsolaritzaren didaktika edo nola irakatsi bertsolaritza hezkuntza arautuan

Hitzaldian bertsolaritzaren irakaskuntzan aplikatu diren hiru uste edo egiteko modu jarriko dira zalantzan. Lehena, lehendabizi idatziz egiten ikasi beharra dagoela, gero bat-batean eta ahoz egiteko. Bigarrena, lehenarekin lotuta, zenbateraino ez ote den gutxietsi ikasleen gaitasuna. Eta azkena, ea zenbateraino aritu garen bertsolaritzaren arauak ikasten-irakasten, eta ez horrenbeste egiteko gaitasuna lantzen.



Beatriz Egizabal Ollokiegi

Ipuin kontalaria eta klown aktorea

Irakasle ikasketak egin zituen. Egun, pailazo edo narratzaile gisa aritzen da. 8 urtez bakarka nahiz taldean ipuin kontalaritza eta klown antzerkia landu ondoren, 2005.urtean, bere taldea sortu zuen Cesar Marcosekin batera. Orduetik hona, ipuin kontalaritzan aritzen dira: narrazioa eta ilustrazioa uztartzen eta klown inprobisaketak egiten aritzen da. Azken urteotan, bakarriketak egiteari ekin dio.

Klownklusioak

Goizeko hitzaldietan, atsedendian, taldetxoetan... esandakoak, ikusitakoak eta bitzutakoak jaso eta bere galbahetik pasa ondoren, jardunaldiari buruzko umorezko ikuspegia emango digu Beatrizek bakarriketa baten bidez.

Hizlariak



Olatz Bengoetxea Manterola

Soziolinguistika klusterreko teknikaria

Hizkuntza teknikaria eta ikertzailea da Soziolinguistika Klusterrean. Euskal Filologian lizentziatua da eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia unibertsitate masterra burutua du. Gaur egun, proiektu arduraduna da Soziolinguistika Klusterrean ahozko hizkuntzari buruzko hainbat egitasmo eta trebakuntza ikastaroetan.

Ahozko komunikazioan eragiteko aukerak aztertzen hezkuntza arautuan

Nola begiratzen diogu ahozketasunari Hendaian, Bergaran, edo Azpeitian kokatutako ikastetxe batetik? Zein alderdi dira bereziki kontuan hartu beharrekoak? Zein estrategia dugu erabilgarri ikastetxean?

Ahozkoak testuinguru soziolinguistiko ezberdinetan duen erronkei erantzun nahian, Euskal Herrian barrena egindako ikerketa ezberdinen berri eman eta bertatik ateratako gakoak partekatuko ditugu.



Aroa Murciano Eizagirre

UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

Ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea da; Hezkuntza Zientzietan doktorea. Psikopedagogia ikasketak egin zituen eta hizkuntzen didaktika eta kulturartekotasunean espezializatu zen EKOMU masterrean. Ikuspegi sozio-diskurtsiboa du oinarri eta irakasleen prestakuntza eta hizkuntzen ikas-irakaskuntza dira bere ikerketa gai nagusiak.

Ahokotasunaren didaktika. Irakaslea ardatz

Ahozkoa, mundua errepresentatzeko, giza harremanetarako eta informazio trukaketarako tresna izateaz gain, esanahiak negoziatu eta sortzeko gunea da. Ahozkoa, orduan, esanahien ko-kreazio gunea da; eta hala, hiritar/herritar partehartzaile, kritiko eta iritzidunak sortzeko ezinbesteko tresna da.

Hori dela eta, funtsezkoa da ahozkoa(k) ugaritzea irakaskuntzan eta hori egiten jakingo duten profesionalak trebatzea.

Hizlariak



Ainhoa Ezeiza Ramos

UPV/EHUko irakaslea eta ikertzailea

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasle-ikertzaile atxikia da, UPV/EHUko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean. Psikodidaktikan doktore da komunikazio gaitasunaren ebaluazioaren eremuan. Ilusionista Sozialen Mintegia (ISM) ikerketa taldeko ikertzaile nagusia da.

Didaktizismotik konplexutasunera: ahozkotasunera hurbiltzen kultura herrikoien ikuspegitik

Ahozkotasuna kultura herrikoien komunikazio-modu nagusia da, eta edozein logika linguistiko gainditzen du. Gorputz osoko komunikazioa da, eta psikodinamika eta gramatika propioak ditu.

Hori dela eta, ahozkotasuna irakaskuntza-testuinguruetan lantzeko, konplexutasunaren teoriarik murgildu behar dugu, ikuspegi dialektikoaren laguntzaz.



Joxerra Garzia Garmendia

UPV/EHUko irakasle ohia eta ikertzailea

Filosofian eta Kazetaritzan doktore, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatean doktorea. Bertsolaritzari buruzko hainbat argitalpen ditu, liburu zein artikulua, eta ahozko komunikazioari dagokionez, 2008an *Jendaurrean Hizlari* eskuliburua argitaratu zuen. 2009an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Abadia saria eman zion, euskararen alorrean egindako lanarengatik.

Gazteak, eskola eta ahozkotasuna.

Ahozko literatura ez ezik, komunikazio teknologia ere bada ahozkotasuna. Areago, esan liteke gurea bezalako jendarteetan ahozkotasuna dela komunikazio teknologiarik garrantzitsuena. Eskolak, aldiz, idatzizkoari ematen dio lehentasuna.

Ataka horretatik irten nahi bada, ahozkotasunaren lanketak eskola jardunaren ardatz nagusia beharko luke izan. Ikasleari ahoz modu eraginkorrean jarduteko bideak eskaini behar dizkio eskolak.